




INGURUMEN- JARDUERAK AISILDIAN

Z A I N D U G U R E E T X E A



ELA

EUSKAL SINDIKATUA

INGURUMEN- ARDUERAK AISILDIAN

Aurkibidea

- 3 1. Ostatua
- 3 2. Naturguneak
- 4 3. Hiria
- 5 4. Autoa



1. OSTATUA

Oporrak hotelen batean eman behar baditugu, edo gure lana turismo edota ostatu-ematearen ingurukoa baldin bada, hainbat gauza jakitea komeni zaigu ostalaritza-establezimenduetan ingurugiro-jarduera egokiak integratzeaz. Honako hauetaz, adibidez:

- Ez erabili hoteleko **bainugela** igerilekua balitz bezala. Ingurugiroarentzat hobea da dutxatzea bainatzea baino, baldin eta dutxa oso luzea ez bada.
- **Toallak**: toalla lurrean, aldatu beharreko toalla, toalla esekitokian, toallak nonahi... Milioika toalla garbitzen dira egunean mundu osoan inongo premiarik gabe, ura eta xaboa gogotik gastatuz, ur zikinak isuriz eta energia alfer-alferrik kontsumituz.
- Bezeroak gelatik irten direnean **argi** guztiak automatikoki itzaltzeko sistemarik badago, eta erabiliz gero saihestu egiten da alferrikako kontsumoa. Zure hotelak ez badauka sistema hau, gogoratu egin behar zaie bezeroei argi guztiak itzali behar dituztela gelatik irten aurretik.
- Olio **erabili** litro asko sortzen dituzte jatetxe eta hoteletako sukaldeek. Badago horiek jasotzen dituen kudeatzaile baimendurik. Xaboa egiteko erabiltzen zen orain arte olio hori, baina Belgikan dioxinaz kutsatutako oilaskoen afera eta gero ez da jada egiten. Sortzen den olio erabili kopurua handia bada, jaso eta hondakin berrerabilgarri tratamendua eman behar zaio.

2. NATURGUNEAK


Arriskutsua gerta liteke **hondartza** eguzkitarako babesik gabe. Estratosferako ozono-geruza handitu izanak badu ondorio larririk: eguzkiaren izpi kaltegarriek gero eta konjuntibitis eta azaleko minbizi gehiago eragiten dute.

Ez gara txantxetan ari: gorputzean **krema** zabaldu eta segituan uretara sartzea kaltegarria da ingurugiroarentzat, ur-azalean sortzen den olio-mintzak ez baitio uzten argiari hondora ailegatzeko. Jakina, lagun bategatik ez dago arazorik, baina milaka eta milaka aldi berean hondartzan...

Hondartzan erretzen duen horietakoa bazara, jakin ezazu honakoa: **zigarroen iragazkiak** arrainek jan ohi dituzte, eta ito egiten dira urdailera helarazteko gai ez badira. Gogoan izan, bestalde, zigarro-puntak ez direla gauza atsegina hondartzan, ezta zakurren gorotzak ere.

Dena lehen zegoen bezala –edo hobeto– uztea da edozein naturgunetarako printzipio nagusia; hau da, hondakinik ez uztea.

Denbora pasatzeko arroketa karramarroak harrapatzen aritu bagara, ez ahaztu gero haiek jaregitea, batez ere hurrekin bazaudete. Itsasbeheran **izkirak eta karramarroak** harrapatu dituzten guztiek etxera eramaten badituzte ez izkira ez karramarrorik ez da geratuko arroketa; bizitzarik gabe geratuko dira,



beraz. Ez dugu itsasoko ekosistema aldatu behar, eta are gutxiago neska-mutilen aurrean, etsenplu txarra emango bagenieke.

Ehiztariak, berriz, jakin badakite ezin diotela tiro egin hegaka dabilen edozeri. Dena den, "inork ikusten ez nauenez, tiro!" irizpidea oso zabaldua dago ehiztarien artean. Halaxe dabil gure bioaniztasuna gure ingurunean: desagertzeko zorian, alegia.

Kartutxoak jaso egin behar dira, berunak poluitu egiten baititu akuiferoak eta, azken batean, gizakia bera. Berunezko perdigoien ordeztuzkoak edo beste metalen batez eginikoak erabiltzea ezinbesteko

betekizuna da. Ehiztariak natura maite dutela egia bada, badakite nondik hasi zaintzea da maitatzea.

Paisaia ederrak dituzten lekuak -- haitzak, itsaslabarrak, mendi-gailurrak, natur ingurunean daudenak edo herriren baten ezaugarri berezi direnak--

pankartak jartzeko, pintadak egiteko, testuak grabatzeko... erabili ohi dira batzuetan. Edozein delarik ere zabaldu nahi den mezua, ikus-kutsadurarik ere badela gogoratzea komeni da: kartel edo seinale gehiegi errepideren batean, altzari gehiegi kaleren batean --lehenago zeukan xarma ezkutaturik--, mendi-gailurra aldatuz edo naturgune ederra halako mezuren baten euskarri bilakaturik...

Bai erakunde publikoek bai gizarte-mugimenduek pentsaera berria berenganatu beharra daukate, paisaia

bereziak zaindu eta lekuan lekuko berezitasun geografikoak babesteko.


Naturaren edertasuna miresteko gaitasuna ez da genetiko izaten, **heziketa** kontua baizik, ikasi egiten da. Horregatik da garrantzitsua **gure natur ingurunea bisitatu eta ezagutzea**. Guztion eginkizuna da hurrengo belaunaldiei helaraztea naturarekiko mirespena eta begirunea. Garrantzitsua da, beraz, gure seme-alabak parke naturaletara eramatea, mendian ibilaldiak egitea edo mendira egun-pasa joatea, lorategietako zuhaixkak ez direla puskatu behar adieraztea... inguruneaz ikasten eta horretaz gozaten hasteko.

3. HIRIA

Zenbat eta jende gutxiago etorri automobiler hirira, orduan eta bizitzeko egokiagoa. Hirian autoz ibili behar baduzu, ez ahantzi geldi ibiltzea: oinezkoentzako izan behar du hiriak. Beraz, haiei eman bidea zebra-pasaguneren batean oinezkoekin topo egiten duzunean.

Oinezkoentzako guneak eskertzeak dira, baina oinezkoentzako ibilbideak exijitu behar dira. Hots: hiriko oinezkoentzako guneak elkarrekin lotuta egotea, eta ez uharte isolatuak izatea.

Gehiago hartzen dira kontuan autoak oinezkoak baino hiriak diseinatzerakoan. Hona hemen zure hiriaren kalitatea neurtzeko sistema erraza: haurrek eskolara oinez joaterik badaukaten aztertzea, edo aiton-amonek lasai zeharkatu dezaketen bidea edo



errepidea presaka ibili beharrik gabe semaforoan maiztasuna dela eta.

4. AUTOA

Automobila da herri eta hirietako poluzio akustiko eta atmosferikoaren eragile nagusietakoa, egunero isurtzen baitituzte airera eguratsean oxidatuz erreazioa egiten duten substantzia tonak eta tonak.

Substantzia horiek eragiten dute eguratseko ozonoa (pneumatikoak, autoen txapa, plastikoak... hondatzen dituen), baita smog edo euri azidoa ere (asma, azaleko edo begietako gaixotasunak... eragiten dituen).

Zaila da autoa erabiltzeari uztea. Telebistako iragarkiek etengabe gogoratzen digute ez garela ezertxo ere autorik gabe eta, aitzitik, eder askoak, azkarrak, agresiboak eta erakargarriak garela autoa erosi orduko. Halako bankuk oparitan emandako kotxetzarrarekin joaten gara gure seme-alaben bila ikastetxera. Jakina, guraso bakoitza bere autoarekin. Hortaz, denontzako eskola-garraio bakarraren ordezkari egundoko auto ilararekin egiten dugu topo ikastetxeen aurreetan.

Gutxi, oso gutxi kontsumitzen duela autoak esaten digute, eta dortoka ere ateratzen dugu paseatzera, abiadura motel-motelean, badaezpada.

Beste batzuek, aldiz, autoak harrapa dezakeen sekulako abiadura goren digute, honakoa ohartarazi gabe: zenbat eta azkarrago ibili, orduan eta handiagoa kontsumoa.

Honenbestez, eta autoarekiko menpekotasunaren hedadura ikusirik, AUTORIK GABEKO EGUN asko antolatu arren badirudi deus ez garela automobilik gabe eta etxetik bertara daukagun saltokira land roverra hartuta joan beharra daukagula, tanke batek baino gehiago kontsumitu arren.

Urtean % 2ko hazten da, gutxi asko, turismo-autoen kopurua Euskal Autonomia Erkidegoan; kamioien kopurua, % 3, eta %10 hegazkinez bidaiatzen duten herritarrena. Aitzitik, motelago hazi da trenbidezko garraioa.

Garbi asko dago jasangaitza dela gure garraio-eredua.

Gutxiago kontsumitzen dute autoek gaur egun, eta ekologikoagoak dira. Baina frogatuta dago zenbat eta gutxiago kontsumitu orduan eta gehiago erabiltzen ditugula autoak. Beste horrenbeste gertatzen da errepideekin. Auto asko dagoenez, errepide gehiago eta hobeak egiten ditugu; eta errepide gehiago eta hobeak daudenez, auto gehiago erosten ditugu. Beraz, arazoa konpondu beharrean larriagotu egiten dugu.

Ibilaldi luzeetarako bakarrik erabili behar da autoa. Askoz ere gehiago kontsumitzen da autoa martxan jarri eta aparkatzerakoan bidean baino. Zuhurtasunez gidatu behar da, bat-bateko azeleratze eta balaztadarik gabe. Kontrolatu egin behar da motorraren egoera, erregaiaren errekontza egokia izan dadin.

Auto elektrikoek ez dute kerik isurtzen, egia da


6

hori. Baina horientzako bateriak energiaz hornitu dituen zentral termikoak, horrek gogotik isurtzen du.

Automobil-konpainiek behin eta berriro esaten digute beren autoek errespetu handia diotela ingurumenari, gutxi kontsumitzen dutela... Etorkizunean, saldu diguten auto horren beraren kargu egin beharko dira konpainia horiek eta birziklatu egin beharko dituzte hura fabrikatzeko erabilitako 2.500 osagaietarik gehienak. Gaur egun, bizikleta eta garraio kolektiboa dira benetan ekologikoak. Gainerako guztia, salmenta-estrategia.

Autoaren olio erabilia, iragazkia eta abar aldatzen ditugunean tailerrekoek gorde egin behar dute olio hori, gerora beste erabilpen batzuk emateko. Pneumatiko erabiliak ere birziklatzen dira. Galdetu zure ohiko tailerrean ea autoaren hondakinak jasotzen dituzten enpresa baimenduekin aritzen diren. Eusko Jaurlaritzak hainbat dekretu plazaratu ditu (eta plazaratzen ari da) jarduera horiek arautzeko. Mesedegarri litzaioke ingurumenari hondakin horien norakoaz ere arduratzea.

Autoaren osagaien bat aldatu eta haren ordezkari bigarren eskukoaren bat jartzen badiogu, seguru aski zabortege-rako bidean lihoakeen zer edo zeri erabilera berria eman diogu. Pieza



berri eta originalak jarri aurretik gogoratu beste auto batzuen hondakinak ere erabil daitezkeela.

Autoen olio erabilia energia elektrikoa ekoizteko erregaitzat erabiltzen da gaur egun hainbat instalazioetan. Halaber, instalazio beroiek pneumatiko erabiliak ere erabiltzen dituzte elektrizitatea ekoizteko.

Luzaroan izan dugu honako ohitura gaiztoa: auto zaharra, ezertarako balio ez duena, nonahi utzi izan dugu, auto-zabortege batean edo mendiko edozein zokotan.

Auto zaharrek gogotik poluitu dituzte bazterrak: bateriaren azidoa, olioak, erregaia... lur azpira joan dira, eta askotan kareharrizkoa izaten lur azpia, hau da, esponja bat bezalakoa. Beraz, akuiferoetara heldu dira produktu eta substantzia horiek, eta geuk kontsumitzen ditugu akuifero horietako urak.